Proiektuaren erantzuleak ezin du edo oso zail egiten zaio interesdunei sartzeko eskubidea erabil dezaten uztea.

Ahal den neurrian, saihestu egingo da. Aukera honetan, datu pertsonalak disoziatzen dira (eragiketa itzulezina) eta ezinezkoa da jakitea norenak diren interesatuek emandako datu pertsonalak.

- Ezohiko jarduketak egin behar dira

Aukera honetan, aurrekoan baino zailtasun gutxiago dago interesdunen sartzeko eskubidea erabiltzeko, nahiz eta horrek ez duen esan nahi erraza denik. Ahal bada, saihestu egingo da.

- Erabiltzaile normal batek egin dezake

Aukera honetan, ikerketaren erantzuleak (proiektuan erabilitako aplikazioaren "erabiltzaile normala") ez du arazorik interesdunei sartzeko eskubidea erabiltzen uzteko. Gutxieneko aukera desiragarria da, eta hurrengo aukerak bakarrik hobetzen du.

- Interesdunak berak egin dezake

Aukera honek esan nahi du interesdunak berak erabil dezakeela sartzeko bere eskubidea, ikerketaren erantzulearen bitartekaritzarik gabe.

Hori gertatzen da, adibidez, interesdunei ematen zaizkienean erabiltzaile bat eta gako bat, beren datuak kontsultatzeko web orri baten bidez.

Jakina, interesdunak bakarrik ikus ditzake bere datuak.

* Derrigorrezkoa

13. INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

Datuak tratatzen zaizkien pertsonen dituzten eskubideei buruzkoa da atal hau (ikerketa-proiektuetan aplika daiteke, batez ere).

13.1 **Sartzeko eskubidea** babesteko gaitasuna. Adierazi interesdunaren datu pertsonalak eskuratzeko eta kopiatzeko zailtasun-maila *

Oso zaila

Ezohiko jarduketak egin behar dira

Erabiltzaile normal batek egin dezake

Interesdunak berak egin dezake

13.2 **Zuzentzeko eskubidea** babesteko gaitasuna. Adierazi interesdunaren datu pertsonalak zuzentzeko edo osatzeko zailtasun-maila *

Oso zaila

Ezohiko jarduketak egin behar dira

Erabiltzaile normal batek egin dezake

Interesdunak berak egin dezake

13.3 **Tratamendua mugatzeko eskubidea** babesteko gaitasuna. Adierazi interesdunaren datu pertsonalaren tratamendua mugatzeko zailtasun-maila *

Oso zaila

Ezohiko jarduketak egin behar dira

Erabiltzaile normal batek egin dezake

Interesdunak berak egin dezake

14. ESKURAGARRITASUNA, OSOTASUNA, KONFIDENTZIALTASUNA, ERRESILIENTZIA

14.1 Datu pertsonalen eskuragarritasuna babesteko gaitasuna, datuak suntsitu edo galdu ez daitezen.

- Ez dago inolako kopiarik
Datu pertsonalak (disoziatuta edo pseudonimizatuta egon arren) modu automatizatuan tratatzen badira (ordenagailu batean daude), EZ da aukera bat. Nahitaezkoa da datuen babeskopia edukitzea.
- Datuen segurtasun kopia bat dago
Aukera hau edo ondorengoa nahitaezkoa da datu pertsonalak modu automatizatuan (ordenagailu bidez) tratatzen badira (nahiz eta disoziatuta edo anonimizatuta egon)
- Datuak gordeta daude aldebereko kokapen batean baino gehiagotan
Aukera hau edo aurrekoa nahitaezkoa da datu pertsonalak modu automatizatuan (ordenagailu bidez) tratatzen badira (nahiz eta disoziatuta edo anonimizatuta egon).

14.2 Datu pertsonalen osotasuna babesteko gaitasuna, aldaketarik izan ez dezaten istripuz edo modu bidegabe batean

- Ez dago datuen osotasunaren inolako kontrolirik

- Ezin da jakin datu pertsonal batzuk legez kontra manipulatu edo aldatu diren.
- Aldaketen erregistro bat dago
Aldaketen erregistro bat da gordailu bat, eta hor adierazten da NORK ZER datu aldatu/kontsultatu duen, ZER egunetan eta ZER ordutan. Tresna ezin hobea da auditoretza informatikoa egiteko legez kontrako manipulazioen kasuan.
- Datuen osotasuna kontrolatzeko sistema bat dago (CRC, Hash, etab.)
Osotasuna kontrolatzeko mekanismo batek esaten digu datu edo fitxategi jakin batzuk legez kontra aldatu diren. Ez digu esaten nork egin duen, baina bai legez kontrako asmoekin edo ustekabez manipulatu diren datuak direla.
Erreduantzia ziklikoko kontrolak (CRC) detektatzen ditu ustekabeko aldaketak ordenagailu datuetan, eta erabili ohi da sare digitaletan eta biltegiatze gailuetan (disko gogorretan, esaterako).
HASH da datu batzuei laburpen funtzio bat aplikatzetik sortutako kate alfanumeriko bat. Datuak manipulatu badira, berriro laburpen funtzioa aplikatzean aldatu egingo da HASHa, eta datuak manipulatu egin direla erakusten du horrek.

14.3 Datu pertsonalen konfidentzialtasuna babesteko gaitasuna, baimenik gabeko komunikazio edo sarbide kasuetarako

- Interesdun batek beste interesdun batzuen datuak ikus ditzake
Kasu hau ez litzateke gertatu behar inoiz: ikerketa batean parte hartzen duen pertsona bati ezin zaio iritsi beste parte-hartzaileen daturik.
- Interesdun bakoitzak bere datuak bakarrik ikus ditzake (sarbide kontrola)
Egoera hau normala izango litzateke: soilik parte-hartzaileak eskura ditzake bere datuak.
- Administratzaileek ere ezin dituzte datuak ikusi, soil-soilik interesdunak (zifratuta)
Egoera hau gertatzen da sistema informatikoen administratzaileek ere eskuratzerik ez dituztenean parte-hartzaile baten biltegiatutako datuak; adibidez, zifratuta daudelako. Parte-hartzaile horrek gako bat izango du bere datuetara sartzeko.
- Ezin dira identifikatu interesdun baten datuak (pseudonimizazioa)
Datu pertsonalak pseudonimizatuta daudenez, kontsultatu badaitezke ere, ez dago jakiterik norenak diren.

14.4 Datu pertsonalen erresilientzia babesteko gaitasuna, ezbehar fisiko edo teknikoetan

- Ez dago aurreikusi datuak lehengoratzeko mekanismorik
Kasu hau ez litzateke gertatu behar. Babeskopia badago, datuak lehengoratzeko mekanismo bat egon behar da gutxienez. Adibidez, pen drive batetik abiatuta, datuen lehengoratzea egingo litzateke babeskopiaren fitxategiak kopiatuta disko gogorrera.
- Zehaztuta dago datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea lehengoratzeko mekanismoa
Aukera hau da eduki beharreko gutxienekoa, babeskopia bat izatean.

- Mekanismoak daude datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea berehala lehengoratzeko
Aukera honek aurrekoa hobetzen du, datuak lehengoratzeko mekanismo probatu bat delako; gainera, azkartasuna eranstean dio prozesu horri.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ADIERAZPENA

* Derrigorrezkoa

14. ESKURAGARRITASUNA, OSOTASUNA, KONFIDENTZIALTASUNA, ERRESILIENTZIA

14.1 Datu pertsonalen **eskuragarritasuna babesteko gaitasuna**, datuak suntsitu edo galdu ez daitezten. *

Ez dago inolako kopiarik

Datuen segurtasun kopia bat dago

Datuak gordeta daude aldebereko kokapen batean baino gehiagotan

14.2 Datu pertsonalen **osotasuna babesteko gaitasuna**, aldaketarik izan ez dezaten istripuz edo modu bidegabe batean *

Ez dago datuen osotasunaren inolako kontrolik

Aldaketen erregistro bat dago

Datuen osotasuna kontrolatzeko sistema bat dago (CRC, Hash, etab.)

14.3 Datu pertsonalen **konfidentzialtasuna babesteko gaitasuna**, baimenik gabeko komunikazio edo sarbide kasuetarako *

Interesdun batek beste interesdun batzuen datuak ikus ditzake

Interesdun bakoitzak bere datuak bakarrik ikus ditzake (sarbide kontrola)

Administrazioaleek ere ezin dituzte datuak ikusi, soil-soilik interesdunak (zifratuta)

Ezin dira identifikatu interesdun baten datuak (pseudonimizazioa)

14.4 Datu pertsonalen **erresilientzia babesteko gaitasuna**, ezbehar fisiko edo teknikoetan *

Ez dago aurrekisi datuak lehengoratzeko mekanismorik

Zehaztuta dago datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea lehengoratzeko mekanismoa

Mekanismoak daude datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea berehala lehengoratzeko

Atzera **Hurrengoa**

15/17 orria

15. TRATAMENDU SISTEMAK, SEGURTASUNA ETA BITARTEKOAK IKERKETA PROIEKTUETAN

Atal honetan zehazten dira datu pertsonalak babesteko hartuko diren segurtasun neurriak, eta ezinbestekoak dira Arriskuen Analisia (RA) egiteko.

Aipatutako neurri gehienak hartu behar dituzu; bestela, GIEBek baztertu egin ahal izango du, arrisku handiegiagatik.

15.1 Datu pertsonalak tratatzeko erabiltzen diren informazio sistemak deskribatu

Atal honetan zehaztu behar dituzu:

- Non gordeko diren paperean emandako baimen informatuak (eraikina, bulegoa, armairua...) eta aplikatutako segurtasun neurriak (giltzadun armairua, etab.).

- Erabiliko duzun sistema informatikoa (korporatiboa, partikularra... bada, inbentarioaren identifikazio zenbakia...) eta datuak tratatzeko softwarea.

15.2 Papera

Paperean emandako datu pertsonalak giltzapean gorde behar dira, eta modu konfidentzian suntsitu, behin gordetzeko epea amaituta (ez dira zakarrontzira bota behar aurretik suntsitu gabe).

Sarbideen erregistro bat da gordailu bat, eta hor adierazten da NORK ZER dokumentu kontsultatu/aldatu duen, ZER egunetan eta ZER ordutan.

15.3 Elektronikoa

-Faktore bakarreko autentifikazioa

Segurtasun mekanismo bat dago sistema informatikora sartzeko (adibidez, pasahitza edo hatz marka).

-Huts egindako sartzeko saio kopurua mugatzea

Esaterako, sistema blokeatu egiten da hiru aldiz huts egitean pasahitza sartzean.

-Urrutiko sarbideetatik babestea

Sistema babestuta dago urrutitik sartzeko saiakeretatik; adibidez, firewall baten bidez.

-Sistemen konfigurazio segurua

Sistemek dituzte segurtasun neurri eguneratu guztiak, bai eta arriskuak minimizatzeko konfigurazio parametroak ere.

-Sistemak eguneratzea

Sistemek berenganatzen dituzte segurtasun arloko eguneratze guztiak, fabrikatzaileek merkaturatu bezain laster.

-Malwaretik babestea

Sistemek dituzte hainbat tresna: antibirusa, antimalware softwarea, etab.

-Gako kriptografikoak babestea

Gakoak ez dira testu lauan gordeko. Enkriptatuta egon behar dute.

-Eramangarri bidez eginiko urrutiko sarbideak mugatzea

Ekipo eramangarrien konexioak mugatzeko politika bat dago, soilik sar daitezten tratamendu sistemara terminal eramangarri zehatz batzuk edo baldintza jakin batzuk betetzen dituztenak.

-Posta elektronikoa babestea

Posta gaiztoa saihesteko babesak daude.

-https konexioen erabilera

Konexio enkriptatu seguruak erabiltzen dira datu pertsonalak Internet bidez tratatzeko prozesuetan.

-Faktore bikoitzaren autentifikazioa

Bi segurtasun mekanismo daude sistema informatikora sartzeko (adibidez, pasahitza eta hatz marka).

-Erabiltzailearen azken sarbideari buruzko informazioa

Sistemak abisatzen du zein izan den erabiltzailearen azken sarrera, eta aukera ematen dio horrek jakiteko norbait haren ordeztatu den.

-Urrutiko sarbiderako baimen espresua

Sistemara urrunetik konektatzen diren erabiltzaileak baimena jaso dute aurretik, baimenik gabeko sarrerak saiheste aldera.

Beste neurri bat izango litzateke sartzeko ordutegiak baimentzea, baimendu gabeko ordutegitik kanpoko sarrerak detektatzeko.

-Konfigurazioa seguru mantenduko duten aldaketen kudeaketa

Sistemen parametrizazioa eguneratzen da, ezarritako segurtasun politika bete dezaten beti.

-Zaugarritasunen kudeaketa kontuan hartuko duen aldaketen kudeaketa

Sistemek dute segurtasun eguneratzeen politika bat, mehatxu berrien aurkako azken babesak dituen.

-Gailu kriptografiko homologatuen erabilera

Adibidez, pen drives kriptografikoak, galdu edo lapurtuz gero edukia babestuta dutenak

15.4 Disponibilidad

-Backup

Nahitaezkoa da edukitzea tratatutako datu pertsonalen babeskopiak edo backupak.

-Equipos de respaldo

Sistema kaltetuak berehala ordeztuz ditzaketen babes ekipoak daudenean.

-Prevención frente a ataques DoS

Zerbitzua ukatzeko eraso saihesteko babesak daude. Zerbitzua ukatzeko erasoak (DOS) dira konputagailu sistema edo sare baten aurkako erasoak, legezko erabiltzaileei zerbitzu edo baliabide batera sartzeara eragozten diena.

15.5 Integridad

-Uso de firma electrónica básica

Sinadura elektronikoa bermatzen du dokumentu baten osotasuna. Dokumentu bat manipulatu bada elektronikoki sinatu ondoren, detektatu egingo da.

-Bloqueo del puesto de trabajo tras inactividad

Ekipo bat blokeatu egingo da arretarik gabe uzten bada denbora tarte labur samar batean.

Nolanahi ere, onena da ekipoa eskuz blokeatzea, arretarik gabe utzi behar bada denbora tarte labur batez.

-Uso de firma electrónica avanzada

Sinadura elektronikoa aurreratuak oinarritzko sinadurak baino ezaugarri hobekak ditu; hala nola denboren zigilatzea.

15.6 Konfidentzialtasuna

-SUEDONIMIZAZIOA

Konfidentzialtasun teknika itzulgarri hau erabili bada datuen tratamenduan.

-Euskarrien ezabatze segurua

Euskarriak ezabatzen dira eta ezin dira berreskuratu ezabatutako datuak. Adibidez, berrerabiliko diren disko gogorrei hainbat ezabatze ziklo aplikatzen zaizkie.

-Informazioaren kalifikazioa

Informazio pertsonala hainbat kategoriatan sailkatzen da, segurtasun neurriak hartzeko sailkapen horren arabera.

-Euskarrien zifratua

Euskarriak zifratu egiten dira, datu pertsonalak agerian ez gelditzeko, galduz edo lapurtuz gero. Segurtasun neurri hau funtsezkoa da; adibidez, ekipo eramangarrietan, maiz lapurtzen baitira.

-Euskarriak suntsitzea

Euskarriak birziklatu behar ez direnean, suntsitu egin behar dira, datuak berreskuratzea eragozteko.

-Informazioa kategoriaren arabera tratatzeko prozedurak

Informazio pertsonala modu batean edo bestean tratatzen da, kategoriaren arabera; adibidez, segurtasun neurriei dagokienez.

15.7 Ikerketa proiektuetan datu pertsonalak tratatzeko bitartekoak

Atal hau oso erraz betetzen da.

Besterik gabe, markatu ikerketan erabiltzen diren baliabideak.

Atal hau, aurrekoarekin batera, ezinbestekoa da Arriskuen Analisia (RA) egiteko.

15. garren atala bukatzeko galdera hau erantzun beharko dugu:

BERRIRO ADIERAZI TRATATZEN OTE DIREN BEREZIKI BABESTUTAKO DATUAK (osasuna, ideologia edo iritzi politikoak, erlijioa, sindikatu afiliazioa, sinesmenak, arraza, sexu bizitza, genero indarkeria, datu biometrikoak, datu genetikoak, polizia helburuak dituzten datuak, kondenak eta delituak, arau-hausteak, administratiboak...) **EDO TALDE ZAURGARRIEN DATUAK** (14 urtetik beherako haurrak, adinekoak, desgaituak, gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak, paperik gabeko etorkinak, indarkeriaren biktimak...). **KASU HORRETAN, 16. ATALA BETE BEHARKO DUZU.** *

BAI

EZ

Atzera Bidali

16/17 orria

Erantzuna ezezkoa bada, formularioa amaitu egingo da. Erantzuna baiezkoa bada, eta hori bakarrik kolektibo zaurgarriekin edo datu bereziki babestuekin tratatzen baditugu, edo arrisku handia dagoela ikusten bada, inpaktuaren ebaluazioa egin beharko da. Hurrengo ataletan beteko da ebaluazio hori. BAI ere markatu behar da, eta 16. atala bete, hemen ezarritak o kasuetan badago: <https://www.aepd.es/documento/listasdpi-35.5l.pdf>

16. INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Tratamenduak hala eskatzen badu bakarrik bete beharko da, adibidez BEREZIKI BABESTUTAKO DATUAK (osasuna, ideologia edo iritzi politikoak, erlijioa, sindikatu afiliazioa, sinesmenak, arraza, sexu bizitza, genero indarkeria, datu biometrikoak, datu genetikoak, polizia helburuak dituzten datuak, kondenak eta delituak, arau-hausteak, administratiboak...) EDO TALDE ZAURGARRIEN DATUAK (14 urtetik beherako haurrak, adinekoak, desgaituak, gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak, paperik gabeko etorkinak, indarkeriaren biktimak...)

Interesdunen Pribatutasunaren eta Eskubideen gaineko Inpaktu Ebaluazioa (DBIE edo PIA, ingelesez) egin behar da datuen tratamenduak berekin dakarrenean arrisku esanguratsu edo handi bat pertsonen eskubideentzat. BEREZIKI BABESTUTAKO DATUAK EDO TALDE ZAURGARRIEN DATUAK tratatzen badira

Dena dela, hori guztia baino hobea da berriro planteatzea alderdi etikoak eta metodologikoak, ikertzean inpaktu txikiagoa izateko parte-hartzaileen

pribatutasunean eta eskubideetan. Askotan ez da posible, eta orduan galdetu behar diozu zeure buruari ea merezi duen ikerketarekin jarraitzea, kontuan izanik horrek dakarren arriskua parte-hartzaileen pribatutasunarentzat eta eskubideentzat. Erantzuna baiezkoa denean, haren justifikazioa da DBIE, eta gauzatu egiten da ahalik eta modu arrazoitu eta zehatzenean erantzunez atal honetako galdera guztiei.

16.1. Tratamenduaren ezaugarrien analisisa

Aztertu formulario honen 3-8. atalak eta egin haien balorazio partziala: Kontuan izanik aipatu den helburua, egokia da egingo den datu pertsonalen tratamendua?

BAI/EZ: Markatu **BAI**, jarduera eta datu guztiak bat badatoz aipatutako helburuarekin, eta beste ezertarako erabiliko ez badira; markatu **EZ**, aipatu gabeko desbideratze edo helbururen bat badago.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Azaldu zergatik diren beharrezkoak jarduerak eta datuak helburua betetzeko, eta nola bermatuko den ez direla erabiliko beste ezertarako.

Erantzun adibidea:

Elkarrizketak, foku taldeak eta marrazkiak erabiltzea ezinbestekoa da ikerketaren helburuekin zuzenean lotutako informazio kualitatiboa lortzeko; teknika horiek aipatutako helburuari egokitzen zaizkio, eta aukera ematen dute behar diren datuak bakarrik jasotzeko, aipatu gabeko beste ezein erabilerarik gabe (helburua mugatzeko printzipioa eta erantzukizun proaktiboa).

16.2. Tratamenduaren beharra eta proportzionaltasuna

- *Bildutako datuak erabiliko dira soil-soilik aipatutako helbururako, eta ez dira erabiliko ez aipatu gabeko beste helburu batzuetarako ez erabileraren legitimitatearekin bateraezina den beste xede baterako (helburua mugatzeko printzipioa)*

BAI/EZ: Markatu **BAI**, aipatutako helbururako bakarrik erabiliko direla bermatzen bada; markatu **EZ**, aipatu ez den beste erabileraren bat egon badaiteke.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Azaldu nola segurtatuko den datuak ez direla erabiliko beste helburu batzuetarako eta soilik erabiliko direla aipatutako xederako.

Erantzun adibidea:

Datuak erabiliko dira soil-soilik aipatutako helbururako, eta ez dira erabiliko beste helburu batzuetarako edo bateraezinak diren beste xede batzuetarako; tratamendua mugatuko da formularioan jasotakora eta baztertu egingo da aurreikusi gabeko edozein berrerabilera, aintzat harturik DBEOk ezartzen dituen helburua mugatzeko printzipioa eta erantzukizun proaktiboa.

- *Helburua betetzeko, bildu beharreko datu guztiak behar dira, eragindako pertsona/interesdun guztien kasuan (datuak minimizatzeko printzipioa)*

BAI/EZ: Markatu **BAI**, eskatutako datu guztiak ezinbestekoak badira; markatu **EZ**, daturen bat guztiz beharrezkoa ez bada.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Arrazoitu zergatik den ezinbestekoa datu bakoitza, eta ziurtatu ez dela bilduko proiekturako balio ez duen daturik.

Erantzun adibidea:

Eskatutako datu kategoria bakoitza behar-beharrezkoa da, eta proiektuaren helburuak betetzen laguntzen du; egiaztatu da ez dela funtsezkoa ez den daturik bilduko, minimizatzeko printzipioa betetze aldera.

- *Tratamenduan erabilitako teknologiak egokiak dira helburua betetzeko, pribatutasunaren oinarriko printzipioak betetzeari dagokionez.*

BAI/EZ: Markatu **BAI**, teknologiek segurtasun neurri egokiak erabiltzen badituzte (zifratua, sarbide kontrola, pribatutasun lehenetsia); markatu **EZ**, nahikoak ez badira.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Azaldu nola bermatuko dituzten teknologiek konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta DBEOk ezarritakoa.

Erantzun adibidea:

Teknologiek erabiliko dituzte zifratua, sarbide kontrola eta anonimizazio aukerak, bat datoz politika korporatiboarekin, eta aukera emango dute pribatutasuna aplikatzeko, diseinutik beretik eta modu lehenetsian, konfidentzialtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna bermatuta, bat etorririk DBEOrekin.

- *Datuak gordeko dira soil-soilik tratamenduaren helburuak betetzeko behar den denboran, ez gehiago (datuak gordetzeko epea mugatzeko printzipioa).*

BAI/EZ: Markatu **BAI**, epe zehatza edo datuak gordetzeko eta ezabatzeko irizpide argiak badaude; markatu **EZ**, epe edo irizpiderik ez badago edo gehiegizkoak badira.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Aipatu datuak gordetzeko epea edo irizpidea, eta nola ezabatu edo anonimizatuko diren datuak proiektua amaitzean.

Erantzun adibidea:

Datuak gordeko dira soil-soilik proiektuaren helburua betetzeko behar den denboran, eta emaitzen analisia eta zabalkundea amaitu arte; gero, modu seguruan ezabatu edo anonimizatuko dira, kontuan izanik gordetzeko epea mugatzeko printzipioa.

- *Egingo den datu pertsonalen tratamendua beharrezkoa eta proportzionatua da*

BAI/EZ: Markatu **BAI**, bilduko diren datuak gutxienekoak eta ezinbestekoak badira; markatu **EZ**, horren inbaditzailea ez den beste aukerarik badago.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Azaldu zergatik den beharrezkoa tratamendu zehatz hau, eta nola egokitzen zaion proportzionaltasun printzipioari.

Erantzun adibidea:

Tratamendua beharrezkoa eta proportzionatua da, ez dagoelako antzeko emaitzak eman eta horren inbaditzailea izango ez den alternatibarik, eta soil-soilik bilduko direlako aipatutako helbururako ezinbestekoak diren datuak, aintzat harturik DBIEk ezarritako proportzionaltasun irizpideak.

16.3. Arriskuen analisia

Aztertu formulario honen 13. eta 14. atalak eta arriskuen analisiaren emaitza, eta egin haien balorazio partziala.

Egingo den datu pertsonalen tratamendua onargarria da zehaztu diren arriskuen ikuspegitik

BAI/EZ: Markatu **BAI**, aplikatuko diren neurriek arriskuak maila onargarri batera murriztuko badituzte; markatu **EZ**, maila onargarri batera murriztuko ez badituzte.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Azaldu zer arrisku dauden eta zer neurri hartuko diren arrisku horiek maila onargarri batera murrizteko.

Erantzun adibidea:

Tratamendua onargarria da arriskuen ikuspegitik, hondar arriskua maila onargarri batera murriztuko duten neurriak hartuko direlako, mehatxu eta zaurgarritasun garrantzitsuak identifikatu ondoren, kontuan izanik DBEOren tratamenduaren segurtasun betekizunak eta DBIEren berezko metodologia.

16.4. Segurtasun neurrien analisia

Aztertu formulario honen 15. atala eta egin haren balorazio partziala

Egingo den datu pertsonalen tratamendua behar bezain segurua da, kontuan hartuz erabiliko diren segurtasun neurriak

BAI/EZ: Markatu **BAI**, kontrol egokiak badaude (zifratua, sarbide murriztua eta datuak gordetzeko modu segurua); markatu **EZ**, babesa nahikoa ez bada.

Azalpen lerroa: *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Esan zer neurri erabiliko diren bermatzeko datuen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna.

Erantzun adibidea:

Tratamendua behar bezain segurua da, informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna babestuko dituzten neurriak hartuko direlako, aintzat harturik DBEOren 32. artikulua eta pribatutasun printzipioak (diseinutik beretik eta modu lehenetsian).

16.5. Amaierako balorazioa

Kontuan harturik aurreko balorazio partzialen erantzunak, arrazoizkoa eta unibertsitatearentzat onargarria da egingo den datu pertsonalen tratamenduak pertsonen eskubide eta askatasunetan izango duen inpaktua.

BAI/EZ: Makatu **BAI**, hondar arriskua txikia edo arrazoizkoa bada eta eginiko balorazioak positiboak badira; markatu **EZ**, arrisku esanguratsuek jarraitzen badute. **Azalpen lerroa:** *Erantzuna baiezkoa bada, azaldu arrazoiak.* Laburtu zergatik den onargarria inpaktua eta zer neurrik bermatuko duten eskubideen babes egokia.

Erantzun adibidea:

Kontuan harturik balorazio partzialen erantzunak, arrazoizkoa eta unibertsitatearentzat onargarria da egingo den datu pertsonalen tratamenduak pertsonen eskubide eta askatasunetan izango duen inpaktua. Hartutako neurriek —segurtasun teknikoa, datuak minimizatzea eta interesdunekiko gardentasuna barne— txikitu egingo dute hondar arriskua, DBEOrekin bateragarria den maila batera. Tratamendua egingo da helburu legitimo batzuekin, oinarri juridiko egoki baten pean. Gainera, bereziki zaindu beharreko datuak eta kolektibo zaurgarriak direnez, segurtasun handiagoko neurriak aplikatuko dira; hala nola BitLocker zifratua eta berridentifikazio matrizearen kontserbazio berezia, arriskuari egokitutako babes sendoa bermatzeko.